

BOST MINUTUKO IKASTAROA

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Euskara hobetzen

"Baietz, ba!"

Euskaldun askok zenbait esapide adierazteko erdarakada itzelak botatzen dituzte. Hona hemen bat: **"a ke ez dator!"**.

Ez hori bakarrik: **"a ke bai!"** edo **"a ke ez!"**. Bistan da molde gaizto horiek guztiak baztertu, eta euskarak bere-bereak dituenak erabili behar ditugula, euskara ahalik eta txukunena izan dadin.

Beraz, ez dezagun esan **"a ke ez dator Patxi!"**, baizik eta...

- **"Ezetz etorri Patxi!"**.
- **"A ke bai!"** esan ordez?
- **"Baietz!"**, "baietz, ba!".
- Eta, azkenik, **"a ke ez!"** esateko partez...
- **"Ezetz!"**, edo, bigarren aldiz esateko, **"ezetz, ba!"**.
- + **"Ezetz etorri Patxi!"**
- **"A ke ez dator Patxi!"**

HABEko Ikasbiletik jaso

Artikulua

Malkoak isurtzeraino

Erraldoi eramaileei zaila egiten zaie gona azpiko bizipenak deskribatzea. Haur, heldu eta zaharren begirada eta irribarrea oihalaren atzetik ikustea pribilegioa dela argi diote. Joxepamundak badaki hori, ongi jakin ere. Behin, Pedro Tres Nueva Etapa orkestrako abeslariari erraldoiaren barnean sartzeko gonbita egin zioten, barnekoa ikusteko. Zezen plazaren inguruan ziren. Erraldoia altxatzen saiatzeko esan, eta hark txintxo obeditu zuen. Joxepamunda goratu bezain pronto, gaiteroa melodia jotzen hasi zen, eta barnekoak ez zuen beste erremediorik izan: aurrera. Dantza bukatuta, hankak dardarka zituela atera zen gona azpitik. Konpartsak aurrera jarraitu zuen gero. Halako batean, kiosko baten ondoan lagun bat ikusi zuten eguzkitarako betaurrekoak jantzita. Tres bera zen, negar batean itota. Urduritasunak bultzaturik isuri zituen malkoak. Ez da 157 urte hauetan erraldoiekin negar egin duen bakarra izan. Ez izanen ere.

Iker Tubia

Berria

<http://www.berria.eus/sanferminak17/goodbye.php?testua=15424>

